

## GOTZON GARATEREN IAUAXETA'RI BURUZKO IDAZLANA DALATA

Gotzon Garatek Lauaxeta zanari buruz *Karmel* onetan (2003-4, 3-23) idatzi eban lana pozarren irakurri eta bir-irakurri neban baina biotz-ikutua egin eustan gure olerkari gurenari buruzko idatzian aittetugarria litzaken jakingarria: euskeraz idazten asteko bultzakadea nortzuk eta zer dalata eragin eutsoen.

Nik neuk lenengoz ezagutu neban josulaguna, Arregi Aita zala uste dot. Larrinaga'ko espetxera etorten ekigun larunbatean. Arexegaz autortu eta alkarrizketatxua izaten genduan aretarako gogoa geunkanak.

Gudea amaitu zanean, josulagun erdaldun bat, benetan gure arerioa, Espaina-aldetik agertu ekigun, *gorri zantarrak* garealakoan, bere itzaldiz guri lotsak emoteko asmu zitalez-edo. Begona'ko Karmeio'n espe egozneri *bere erako* itzaldien bat egin eutsen eta an, beartutako entzuleak, destainezko eztulak egin eutsoezelako, Larrifiaga'ra bialdu ebezan zigortuta. A, josulagun a, Larrifiaga'ra be eldu zan baina ez naz gogoratuten zertzuk esan euskuzan: gauzonik ez, aurki.

Ai, baina, auxe da itxusigarriena. Larrifiaga'ra orduko Deustu'ko Unibersitatean be euki genduezan eta ara be eldu ekigun, bein, atzerritar josulagun bat bere itzaldi zitalez guri, *jareizpide bagako adinonok*, bide zuzeneratuteko asmuz-edo.



"Lauaxeta" Aitzgorriren gailurrean bi adiskideekin (1933-08-28).

Eta, oraintxe ikusiko ba-neu lez daukat gogoan, arek orduan, amurruz, esan eta egin euskun ezezpenezko eginena: oratu bere jantziari paparretik eta aurrerantz ten eta ten eginez: «jSoy jesuitaj» esan euskun amurruz beterik. «jSoy jesuita!».

Etxaide'tar Jon donostiar idazlearen bitartez izan neban Zaitegi jaunaren barri eta argitaratutako *Eusko Gogoaren* ieki guztiak bialdu eustazan eta, aurrerantzean, zuzen artuten neban a, aldizkari jakingarri a.

Gure izkuntzea zapalduta eta ezezpanduta egoan aldi txar areitan, pozarren argitaratuten eustazan neure olerkiak eta idazlanak eta alkarren adiskide zintzo egin izan gintzazan. Bere olerki-libumak eta beste enpaiduak be, berak eladeratik itzulitako *SopokeVen Antzerkiak*, *Platon'eneko Atarian*, *Platon* /eta abar emon eustazan, borondate onez, bere eskintza-itzez.

Emen egoanean, udaldi guztietan ikertuten nenduan eta aldi atzegina izaten genduan alkarregazko autuetan. Andima'k eta nik, Venezuela'n ezagutu genduan alkar eta lagun ona ta zintzoa izan neban au be. Zaitegigandik eta onegandik, Andimagandik, asko ikasi izan neban bai euskera-arloan eta beste jakingarri askotan.

Zaitegi'k eta Andima'k esanda dakit, ba, zure idazlanean ez dala agertu dinotsudana zer dan: bein, erderazko olerki bat eskuetan ebalatzen joan ei-ekioen Andima'ri ta Zaitegi'ri, arein eretxi ona izatekotan, baifia areik, Zaitegi'k eta Andima'k, euskerazale amurratuak izan, ez eutsoen ontzat emon, urrango itzok esanez: itxi egik erderean ta idatzi egik euskeraz, euskaldunok geure izkuntzea indartu bearra yaukagut-eta. Areixen esanera asi ei-zan, ba, Lauaxeta, olerkiak euskeraz egiten. Beste au be jakingarria dogu: Lauaxeta'k sinismen bagako bat ei-eukan espetxean lagun eta bere otoitz eta itzez, bide onera biurtu ei-eban.

Nik neuk Lauaxeta ez neban ezagutu arpegiz baino. Aren *Arrats-Berarteko* olerkiak guda-aurrean irakurri nebazan, gatzetan, eta egundoko zirrada egin eustien neure gogoan: Areixek, olerki bikain areixek, biztu eta azkortu eustien, ba, neure olermenan.

Beste baitegi batetik Larrinaga'ra aldatu eben norbaitek ekarri eban azken-aldian Lauaxeta'k Amabirjineari erderaz egindako olerki unkiagarria, *Plegaria postrera*, taiu barik eta lorrin idatzita... Maitasunez eta pozarren artu genduan, ba, geure olerkari gurenaren azken-emaiza.

Olerkariaren azkena deritxon olerkiaren azken-aapaldian  
auxe idatzi neban:

Ta izadia illetaz dau, gau eta egunez,  
Negarra dariola orri bakoitzetik.  
Gudoineko dunbotsak, aserrez menditik.  
Orban bagako odola didarka tatarrez.

*Aurre-Apr aiz*